

# HAPO Alonsotegi

Parte hartzeko eskuliburua

## ZER DA HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA?

Plan Orokorrak hiri-plangintzako tresnak dira, eta, zeharkako ikuspegi batetik, hirigintza-antolamenduko ereduaren diseinua eta hiriaren lurralde-diseinua ezartzen dute, espazio bizigarriagoak egiteko. Plan orokorra egiteko, hiri-antolamendua osatzen duten elementu guztiak hartzen dira kontuan: hiri- eta landa-paisaia, ingurumena, klima-aldaketa, mugikortasuna, oraingo eta etorkizuneko lurzoru-erabilerak, etxebizitza-parkearen egokitzapena eta proiektzioa, hornidura-zerbitzuak, uraren, energiaren, telekomunikazioen eta hiri-hondakinen arazketa eta birziklapena, osasuna eta genero-ikuspegia, bai eta ondarearen kontserbazioa ere. Horiek guztiak batera baloratu eta planifikatzen dira, hainbat irizpide eta helbururen arabera; lan horretan herritarrek ekarpen garrantzizkoak egin ditzakete, betiere legeriak ezarritakoa beteta.

## ZERTAN ERAGINGO DIT NIRI PLAN OROKORRAK?

Etorkizuneko Plan Orokorrak Alonsotegiko hiri-eredua ezarriko du, eta ere du horrek eragina izango du – zuzenean edo zeharka – zure eta datozen belaunaldien eguneroko bizitzako hainbat kontutan. Lekuz aldatzeko moduak, zuzkiduren eta ekipamenduen eskuragarritasuna eta etxebizitza duin bat eskuratzeko aukerak baldintzatuko ditu, zure lan-bizitza garatuko duzun sektore ekonomikoetan eragingo du eta inguruko paisaiari forma emango dio, besteak beste. Azken batean, plangintza orokorrak eragin handia izango du, eta horregatik da hain garrantzitsua zeuk ere parte-hartzea. Hori dela eta, funtsezkoa da plana hobetzen lagunduko duten adostasunak bilatzea.

## NORK HAR DEZAKE PARTE PLAN OROKORREAN?

Hiri-plangintzak diziplina askotako osagai tekniko sendoak ditu guztion borondate eta akordio sozioekonomikoei forma eman ahal izateko. Hala ere, itzelezkogarrantziadakaherritarrek hiri-arazoei buruz daukatenez egunerokoezagutzabatzeak, baita arazo horiek ikuspuntu desberdinetatik izan ditzaketen irtenbideen inguruan dituzten ekarpenak jasotzeak ere.

Horrexegatik egiten zaie dei eragile guztiei, hain zuzen ere, elkarte-sare osoari: auzo elkarteei, elkargo profesionalei, langileen edota enpresen elkarteei, bai eta ondarea eta ingurumena zaintzeko plataforma proaktiboak ere. Plataforma horiei banaka deitu ahal izango zaie, herritarrekin batera. Deialdi irekia da, eta izaera inklusiboari eutsiko dio Plan Orokorra idazteko prozesuaren fase guztietan.

## ZELAN HAR DEZAKET PARTE?

Parte hartzeko bide ugari ezarriko dira. Prozesuan zehar, on-line interakzioak egingo dira, baita taldean lan egiteko aurrez-aurreko topaketak, proposamenen aurkezpenak, erakusketak eta ekarpenak bilketak ere. Gainera, prozesuak irauten duen bitartean, irekita egongo da proposamena idazten duten teknikariek egoteko aukera. Prozesuari buruzko informazio guztia <http://alonsotegiplanorokorra.eus/> webgunean zentralizatuko da, eta, berez, kontsultarako eta parte hartzeko gunea izango da. Bertan, beti irekita egongo den partaidetza-postontzi bat jarriko da.

## NOIZ HAR DAITEKE PARTE?

Parte-hartze prozesua hainbat maila eta etapatan dago antolatuta, eta hainbat fase edo mugarri planteatzen dira dokumentua osatzeko lanetan. Edozein unetan parte hartu ahal izango da modu aktiboan, kezkak, ideiak eta beste gai batzuk emanez, <http://alonsotegiplanorokorra.eus/> web orriko partaidetza-postontziaren bidez. Webgune horretan, planaren idazketa- eta onarpen prozesuan sortutako dokumentuak ere kontsultatu ahal izango dira. Parte hartzeko etapak –galdetzeko aukera beti egongo da– honako hauek dira:

### 1. PARTE HARTZEKO LEHEN-ETAPA: Aurretiazko txostena eta galdera-sorta, diagnostiko partekatu bat eraikitzeke.

Parte hartzearen lehenengo pausua edo lehenengo mugarria, AURREDIAGNOSTIKO

batean oinarrituta hasiko da. Zelan? Herritar eta eragile parte-hartzaile guztiei dei egingo zaie, euren joera nagusiak identifikatu ahal izateko.

Hasierako fase horretan, Plan Orokor operatiboaren webgunearen bidez, galdera-sorta ireki bat betetzeko gonbita egingo da (on-line). Galdera-sorta horretatik batutako informazio, ezagutza eta ohar guztiak erabiliko dira oinarrizko aurre-diagnostikoa inplementatzeko fasean. Horrela, prozesuan parte hartzen duten eragileen hasierako oinarrizko taldea eratuko da: ekarpenak eta jarraipena egiteko borondatea duten elkarte, erakunde edota norbanakoek osatua. Oinarrizko talde hori beti egongo da zabalik solaskide berriak sartzeko, eta prozesuaren bilakaeraren arabera berrikusi eta zabalduko da.

Hasierako iritzi-bilketa horretatik ateratako ondorioak kontrastatu egingo dira dokumentua idazteko prozesuan parte hartu duten eragile guztiekin, eta erredakzio-taldeak birformulatu egingo ditu, zerbitzu teknikoekin eta udal-korporazioarekin koordinatuta. Izan ere, helburu nagusia da plan-aurrerakin horrek (agiriak) adostasun eta onespen zabala eta askotarikoa izatea. Azken finean, herritarren iritzia batzeko eta prozesuaren helburuak eta erronkak ezagutzeko egingo da fase hau.

Gainera, etapa horretatik aurrera, Planean inplikaturako teknikariekin bilerak eskatzeko aukera irekiko da, arreta bereziagoa behar duten gai espezifikoko eta zehatzei heltzeko.

Lehenengo deialdietan gai nagusienak landuko dira, tailer modura. Tailerretan on-line edota aurrez-aurre parte hartzeko deialdia komunikabideen eta zuzeneko gonbidapenaren bidez egingo da. Garrantzitsua da sarean funtzionatzea eta pertsona bakoitzak beste pertsona batzuk parte hartzera gonbidatzea, Alonsotegiko ahalik eta biztanle gehienengana iristeko. Etapa guztietako parte-hartzaileen kontaktuak parte-hartzearen hurrengo etapetako kontaktu-zerrendan sartuko dira.

## 2. AURRERAPEN-AGIRIAREN AZALPEN PUBLIKOA

Herritarren iritzien bilketatik ateratako ondorioak, behin kontrastatu eta berriz DIAGNOSTIKO-TXOSTEN moduan formulatu ondoren, Aurrerapen-agiria (edo Aurrerakina) egiteko erabiliko dira. Dokumentu hori formatu digitalean aurkeztuko da, kontsultatzeko eta deskargatzeko, bai eta formatu fisikoan ere, eta Plan berrian parte hartzeko bigarren mugaria izango da. Iradokizunak jasotzeko etapa bat irekiko da, non herritarrek beren gogoetak zehatz eta zehazki aurkeztu ahal izango dituzten. Iradokizunhoriek Udalekosarreraren registroofizialaren bidez bideratubeharkodira, Plan Orokorren espedientearen parte izango baitira.

Aurrerapen-agiri hori oinarri dela, tailerrak egingo dira proposamena lantzeko eta herritarrei beren iritzia iradokizun gisa formalizatzeko behar adina denbora emateko. Dokumentua argitaratzeko eta ekitaldi eta tailerretarako deialdia egiteko, Udaletik kanpoko eta bertako komunikabideak erabiliko dira, eta zuzenean zabalduko zaie partaidetzaren rekoetapakokontaktu en zerrrendandaudenei.

Aurrerapen-agiria, orain arte egindako oharra hartuta, Planaren Zirriborroa izango da, eta Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin batera, Planaren Ingurumen-azterlan Estrategikoa Eskatzeko Espedientearen parte izango da. Eskualdeko administrazio eskudunak onartu ostean, administrazio horrek gaian interesa duten erakunde eta administrazio, elkarte eta taldeei kontsultak egingo dizkie, beren oharra egin ditzaten. Hauxe izango da Plan berriaren zirriborroa egiteko bideratuko den parte-hartze prozesuaren hirugarren mugaria. Ohar, iradokizun eta kontsulta guztiak parte hartzeko prozesuaren datu-base orokorrean sartuko dira. Eta prozedura amaitzean, Plan Orokorrean izandako parte-hartzearen eta kontsulten gaineko TXOSTENA egingo da, prozedura guztiaren laburpena eta amaiera izango dena.

### 3. HASIERAKO ONARPENA JENDAURREAN JARTZEA

Hasierako onarpen-agiriak banan-banan zehaztuko ditu antolamendu-lanetan egin beharreko zeregin guztiak, lurzati lurzati etorkizuneko hirigintza-eskala definitzera iritsi arte. Aurreko etapan eredia adostu ondoren, zehaztasun handiagoa emango da honako honetan. Plan Orokorren hasierako bertsioa da, baina osoa, eta horren gainean argitu, azaldu eta iritzia emateko aukera egongo da, bai tailer formatuko topaketetan, bai alegazioak aurkeztean.


Ingurumen-azterlan Estrategikoa erantsiko zaio dokumentu tekniko honi, eta horrek aukera emango du ildo estrategiko posibleen ondorioak ezagutzeko, baita aukera horiek alderatzeko, jarduketa gomendagarrienak hautatzeko, onartezinak direnak baztertzeko (halakorik badago), eta ingurumen eragin negatiboak onargarri egingo dituzten ingurumen-zuzenketak definitzeko ere. Ingurumen-azterlan Estrategikoa bete egin beharko ditu ingurumen arloan eskumena duten Erkidegoko administrazioen txostenean bete beharrezkotzat jotzen diren zabalatasun-, xehetasun eta zehaztasun-mailak (txosten hori ingurumen-izapide estrategikoa hasteko eskaerari erantzunez bidaliko dute administrazioek). Eranskin hauek izango ditu: Eragin Akustikoari buruzko Azterlana eta Iraunkortasun Energetikoari buruzko Azterlana.

Fase honetan, halaber, Generoaren araberako Eragina Ebaluatzeko prozedurarako dokumentua eta Planaren Hizkuntza-eragina Ebaluatzeko prozedurari dagokiona lantzen dira.

Prestatzeko fasean, postontzia mantenduko da, kontsultak egiteko eta topaketa espezifikoak hitzartzeko. Udalak dokumentua onartu ondoren, jendaurrean jarriko da berriro, bai espazio fisiko batean, bai planaren webgunean (<http://alonsotegiplanorokorra.eus/>), eta alegazioak jasotzeko epea irekiko da. Alegazioak banan-banan aztertu eta erantzun egingo dira.

Dokumentuari dagozkion tailerrak, non dokumentuaren gai nagusiak eztabaidatuko diren, jendaurreko erakustaldiaren erdian deituko dira, gutxi gorabehera, proposamena berrikusteko denbora emateko eta tailer horien emaitzak interesdunek alegazio gisa aurkezteko aukera izateko. Parte hartzeko deialdia komunikabideen bidez eta aurreko etapetan parte hartu duten eragileen zerrendara zuzenean gonbidatuta egiten da.

Txosten bat argitaratuko da bere ondorioekin eta proposamenarekin zerikusia duten udalaz gaindiko erakunde zehaztapenekin.



## PLAN OROKORRAK OSATZEKO EGITEN DIREN PARTE-HARTZE PROZESU PUBLIKOEI BURUZKO GALDERA OHIKOENAK

Nola egon naiteke informatuta parte-hartze prozesuari buruz?

Prozesu osoaren jarraipena egiteko, herritarrek hainbat tresna izango dituzte eskura.

Web-atari eguneratu bat dago: <http://alonsotegiplanorokorra.eus/>

Webguneak, gainera, PARTEHARTZEKO POSTONTZIA izeneko atal bat du, eta bertan ekarpenak edota edozein motatako gaiak utz daitezke dokumentua idazteko prozesu osoan zehar.

Prensa-albisteak emango dira, eta udaletik bertatik bidaliko zaizkie eragin handieneko komunikabideei.

RSS iturriak: edozein pertsonak – fisikoak edo juridikoak – eska dezake deialdiak berari ere bidaltzeko, hau da, komunikazio-zerrenda batean sartzeko eskatu ahal izango du, parte hartzeko deialdiak hel dakizkion.

Zer dira iradokizunak?

Aurrerapen-agiriari egindako iradokizunak zera dira: Plan Orokor Berriaren Aurrerapen-agirian ezarritako beharrezanezi, komenigarritzat jotako puntu eta gainerako antolamenduko inguruabarrei buruzko iritziak, proposamenak, informazioak, behaketak eta eskaerak (bertan jasotako informazioaren zehaztasunari eta irismenari buruzkoak ere izan daitezke).

Planaren parte-hartze publikoaren garapen osoan Alonsotegiko Udalak ezarritako bideetatik jasotako gainerako ekarpenekin alderatuta, berezitasun bat daukate: iradokizunak Aurrerapen-agiria jendaurrean jartzen den aldian aurkeztu behar dira, Udaltzak ezartzen duen bide ofizialetik (kasu honetan, Alonsotegiko Udaleko Sarrera Erregistro Ofiziala), eta Plan Orokor Berriaren administrazio-espeditarean parte izango dira.

Eta zer dira alegazioak?

Iradokizunen antzekoak dira, baina hasierako Onarpen-agiriarekin lotuta daude. Dokumentu horrek informazio xehatuagoa ematen du, eta lurzuaren etorkizuneko araubide juridikoa zehazten du. Hasierako onespene-agiria jendaurrean ikusgai dagoen bitartean aurkeztu behar dira, Udaltzak ezarritako bide ofizialaren bidez (kasu honetan, Alonsotegiko Udaleko Sarrera Erregistro Ofiziala), eta Plan Orokor Berriko administrazio-espeditarean parte izango dira.

Nola eska daiteke gai espezifikoari buruzko topaketa-saioak egiteko?

Plan Orokor Berriaren Aurrerapen-agiria idazteko lanak garatzeko, komenigarritzat jo daiteke gai eta kontu espezifikoari buruzko bilerak ezartzea. Batzar horiek dagozkien kanalen bidez eskatu ahal izango dira, eta eurretan erredakzio-taldeak, udal-zerbitzu teknikoek edota udal-korporazioko kideek parte hartu ahal izango dute. Horretarako, Udalarekin harremanetan jarri beharko da.

Noiz jakingo dut zertan duen eragina nire jabetzan?

Plan berriak ezarritako antolamendu-ereduaren aurrerapena Aurrerapen-agirian sartzenda. Dokumentu hori jendaurrean jarrikoda, eta Planaren zirriborroizangoda, Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin batera, Plan berriaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa hasteko eskabidean. Dokumentu horretan, hau da, Aurrerapen Planaren zirriborroan jasoko dira antolamendu-eredu horren irizpide, helburu, alternatiba eta proposamen orokorrak, Plan Berria hurrengo izapidetze-faseetan idazteko orientabide gisa balio dutenak, eta, funtsean, aurreikusitako

antolamenduari dagokionez, sistema orokorren adierazpena eta lurzorua erabilera globalen eta horien intentsitateen esleipenera mugatuko da. Hori dela eta, antolamendu xehatuaren zehaztapenak eta partzelen gaineko eragin zehatzak ezin dira dokumentu horretan jaso, zehaztasun-maila hori osteko izapidetze-dokumentuetan ezarriko da, hala nola, Hasierako eta Behin-Behineko Onarpenaren dokumentuan. Izan ere, Aurrerapen-agiria onartzeak barne ondorio administratiboak baino ez ditu izango dagokion plangintza-tresnaren idazketa prestatzeko, legeriak berak arlo horretako erregelamenduzko xedapenetan jasotzen duen bezala.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eskatu webgunearen bidez:

<http://alonsotegiplanorokorra.eus/>

Plan Orokorraren hedapen-zerrendan sartu nahi baduzu, parte hartzeko postontzia erabil dezakezu zure helbide elektronikoa eta datuak uzteko. Erredakzio-taldea kontaktuan jarriko da, prozesuaren mugarren berri eman eta parte hartzeko deien berri emateko.

Eskerrik asko zure arretagatik eta prozesu honetan parte hartzeagatik.